

**UPV/EHUren ETA UPV/EHUⁿ ORDEZKARITZA DUTEN SINDIKATUEN
ARTEKO HITZARMENA, JAZARPENA PREBENITZEKO ETA JAZARPEN
KEXAK KONPONTZEKO**

Atariko

Hitzarmen honen bidez UPV/EHUren eta sindikatuen artean —aurrerantzean, aldeak— kopartaidetzan oinarritutako metodo aurrerakoi bat ezarri nahi da, jazarpen-modalitate guztiak prebenitzeko eta jazarpen-kexak berehala konpontzeko, behar diren bermeekin, prozedura inpartzialekin eta justizia naturalarekin, eta aintzat hartuz pertsonaren duintasuna, pertsonak berez dituen eskubide bortxaezinak, pertsonalitatearen garapen librea, eta legearekiko eta besteen eskubideekiko errespetua. Hemen aitortzen diren oinarritzko eskubideak eta askatasunak tresna hauen arabera interpretatuko dira: giza eskubideen deklarazio unibertsala, lanaren inguruko oinarritzko printzipio eta eskubideei buruzko LANEren deklarazioa, indarrean dagoen ordenamendu juridikoa eta Estatuak gai horien inguruan berretsita dituen nazioarteko hitzarmenak eta akordioak.

Aldeek aitortzen dute hitzarmen honen bidez prebentziorako eta konponbiderako dauden egiturak eta prozedurak hobetu egingo direla.

1. artikulua

Printzipio zuzentzaileak

1.1. Pertsona orok eskubidea du adeitsu, errespetuz eta duintasunez tratatua izateko. Eskubide horren arabera, UPV/EHUK onartzen du neurriak hartu behar direla, langile guztiak aukera- eta tratu-berdintasuna bermatua izan dezaten. Aldeek aitortzen dute jazarpen-mota guztiak, bidezko tratuarekiko mesprezua izateaz gain, hutsegite larriak ere badirela, onartu ezin eta behar ez diren hutsegiteak, hain zuzen ere. Horrenbestez, aldeek agintzen dute inolako jazarpenik gabeko lan-giro bat bermatuko dutela.

1.2. Aipatutako jokabide horiek pertsoneri kalte egiten diete, bai osasun mentalean edo fisikoa bai ongizatean. Eta hala, jokabide horiek pertsonen tratu txar fisikotzat eta/edo psikikotzat har daitezke. Aipatutako jokabide horiek, halaber, UPV/EHU ahuldu egiten dute: unibertsitateari helburuak eta zereginak moteldu egiten zaizkio eta ospea zikindu egiten zaio. Hori horrela, aldeek adosten dute jazarpena jaso duela uste duen pertsona orok kexa aurkezteko eskubidea izan beharko duela, pertsona horrek erabili ditzakeen akzio zibilak eta/edo penalak ahaztu gabe. Kasu horretan, UPV/EHU akusazio partikular gisa azaldu daiteke, hartu ditzakeen diziplinazko ekintzak ahaztu gabe.

1.3. UPV/EHUK hitzarmen honetan aurreikusitako prozedurak aipatzeko eskubidea bermatzen du, horregatik ikaratua izateko eta tratu bidegabea, diskriminaziozkoa edo kaltegarria hartzeko beldurrik gabe. Babes hori berdina izango da alegatu bat adierazi dutenentzat nahiz alegatu horren inguruan informazioa edo nolabaiteko laguntza eman dutenentzat, hitzarmen honetan aurreikusten diren prozeduretakoren batean.

1.4. Aldeek adosten dute jazarpen-kexa bat aurkezten duten pertsona babestu guztiek eskubidea izango dutela goragoko organoari salatua izan den pertsonarekin lan egiteari uzteko eskatzeko (kautelazko neurrietako bat bezala), horregatik inolako tratu kaltegarririk edo bidegabekorik nahiz errepresaliarik jasotzeko beldurrik gabe.

1.5. Aldeek adosten dute hitzarmen honetan jasotako eskubideak urratzen diren bakoitzean, diziplinazko neurriak eta egokitzat hartzen diren beste neurri batzuk hartuko direla. Hain zuzen ere, Arbitraje Batzordearen erabakia UPV/EHUko errektoreari igorriko zaio, dagozkion neurriak hartu ditzan.

1.6. Aldeek adosten dute estrategiak azaltzea eta aplikatzea —horietan sartuko dira informazioa, hezkuntza, trebakuntza, jarraipena eta ebaluazioa—, jazarpenari aurre hartzeko eta UPV/EHU osatzen duten pertsonen jarreretan eta jokabideetan eragiteko, hitzarmen honetako izpirituaren eta asmoaren arabera. Erantzukizuneko karguetako pertsonak nahiz gainerako langileek hitzarmen honen funtzionamendu praktikoari buruzko prestakuntza jasoko dute.

1.7. Aldeek nabarmentzen dute pertsonal guztiaren ardura dela hitzarmen honetan jazarpenaren inguruan ezarritako xedapenak betetzea. Aldeek ahal duten guztia egingo dute pertsonal guztiak hitzarmen honen aplikazioa eta funtzionamendua eraginkorra izaten lagundu dezan.

1.8. Aldeek aitortzen dute beren eginbeharra dela intimitaterako eta konfidentziasunerako eskubidea babestea, hitzarmen honek hartzen duen prozesu guztietan. Jazarpen-kexei buruzko informazio osoa inplikatu guztien intimitaterako eskubidea babestuz maneiaturiko da.

1.9. UPV/EHUK sindikatuen zeregina dela aitortzen du pertsona babestu oro ordezkatzeko, hitzarmen honetako gaien inguruan, pertsona horrek hala eskatzen badu. UPV/EHUK aitortzen du, halaber, sindikatuek aurkeztutako jazarpen-salaketa guztien eta horien inguruko erabakien berri izateko eskubidea dutela. Sindikatuek, bere aldetik, agintzen dute intimitaterako eta konfidentziasunerako eskubidea babestuko dutela, artikulua honetako 8. puntuan adierazitakoaren arabera.

1.10. Aldeek adosten dute behar diren asistentzia eta laguntza emango dutela, jazarpen-alegatu baten inguruan zerikusi zuzena duten aldeek ahal denean konponketa estraofiziala lortu dezaten ziurtatzeko.

1.11. Aldeek aitortzen dute zerikusi zuzena duten aldeek konponketa estraofiziala lortu ezin dutenean, hitzarmen honetan aurreikusitako prozedurak aplikatu beharko direla, auzia justiziaz, konfidentziasunez eta egokitasunez tratatzeko.

1.12. Nolanahi ere, hitzarmen honetan aurreikusitako bideren batean planteatutako proposamenak ez die hirugarrenengo pertsoneri eragingo; proposamena aurkezteagatik ere ez da inolako arazorik egongo prozedurako legearen arabera jarri daitezkeen errekurtsioak eta erreklamazioak bideratzeko edo erabakitzeko.

1.13. Hitzarmen honetan jasotako prozedura hasten bada, edozein dela ere hasbidea, ez dira ez etengo ez luzatuko indarrean dagoen legerian aurreikusitako erreklamazio- eta errekurtsio-epeak.

1.14. Hartzen diren kautelazko neurriak alde batera utzita, demanda zibil bat edo kereila kriminal bat aurkezten bada, eten egingo da hitzarmen honetan aurreikusten den prozedura.

1.15. UPV/EHUK jazarpen-kexekin zerikusi zuzena duten aldeei behar den asistentzia emango die, aholkularitza barne.

1.16. Aldeek aitortzen dute prozedura alternatiboak eskaini behar direla, legerian aurreikusten direnez gain, gatazkak konpontzeko; horrela, jazarpenaren inguruan aurkez daitezkeen kexa-mota ugariei behar bezala erantzun ahal izango zaie.

1.17. UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua oinarrizko eta funtsezko pieza da, hitzarmen honetan: informaziorako eta aholkularitzarako elementua izango da; era berean, pertsona babestuek nahiz demandatuek eta bertan aurreikusten diren guztiek (aldezia, Arbitraje Batzordea; gerentea...) jo dezakete Zerbitzura.

2. artikulua

Definizioak

Hitzarmen honetarako:

2.1. "Pertsona babestua" da hitzarmen honek anparatzen duena, eta hor sartzen dira:

a) irakasleak;

b) AZPko kideak; eta

c) lehen aipatutako a) eta b) ataletan deskribatutako egoeraren bat bizi izan duen pertsona oro; horrelako egoera bat bizitzeaz gain pertsona horrek, alde batetik, UPV/EHUrekin zuen harremana jazarpen-egoera batengatik amaitu zuela alegatu behar du (dimisioa, irazpena edo beste modu bat) eta, bestetik, prozedura hau hiru hilabeteko epean aipatu behar du.

2.2. "Demandatzailea" da hitzarmen honen arabera kexa bat aurkeztu duen pertsona babestua.

2.3. "Demandatua" da bere aurka jazarpen-alegatu bat aurkeztu zaion pertsona.

2.4. Arbitraje Batzordeko prozeduran, "parte-hartzaileak" dira demandatzailea, demandatua eta UPV/EHU.

2.5. "Sindikatuaren ordezkaria" hitzen pean hauek sartzen dira: Langileen Batzordeko edo Enpresa Batzordeko kideak, sindikatuaren kide akreditatuak, prebentzioko ordezkariak edo sindikatuaren beren ordezkari izateko hautatzen duten edozein langile.

2.6. "Egunak" lanegunak dira.

2.7. "Jazarpen-kexa" esamoldea dagokio organo eskudunei jazarpenaren inguruan aurkeztutako komunikazioari, hitzarmen honetan aurreikusitako bideetatik eta prozeduren bitartez, ustezko jazarpen baten ondorioz sortutako gatazka konpondu dadin.

2.8. "Jazarpena" hitzak hartzen ditu ekintza, jokabide, deklarazio edo eskaera diskriminatzaileak, mingarriak, iraingarriak, beldurtzaileak edo indarkeriazkoak; bizitza pribatuan bidegabe sartzea ere jazarpena da. Hain zuzen ere, eta zerrenda itxia ez izan arren, jarraian aipatzen diren hipotesiak sartzen dira:

a) Larderia: eraso errepikatua edo etengabea; pertsona batek edo gehiagok burutua; ahozkoa, psikologikoa edo fisikoa; lantokian edo lanarekin lotuta egina; eta ondorio moduan pertsona babestu bati iraintzea, gutxiestea, laidestea, bortxatzea edo diskriminatzea duena. Larderia hainbat modutan agertzen da.

I) pertsona babestu bat bere lanbidetik kanpo uzteko edo bakartzeko neurriak izaten dira.

II) eraso etengabeak eta kaltegarriak egiten dira, errendimendu pertsonalarentzat nahiz profesionalarentzat.

III) pertsona babestu baten ospe pertsonala edo profesionala manipulatzeko zurrumurruak zabaltzen dira, izena zikintzeko edo barregarri uzteko;

IV) botere-abusuaren egiten da; pertsona babestu baten lana etengabe gutxiesten da, helburuak lortzeko arazoizkoak ez diren edo ezinezkoak diren epeak finkatzen dira edo burutu ezin diren lanak agintzen dira.

V) pertsona babestu bat neurri kanpo kontrolatzen da edo horren errendimendua ez da modu egokian kontrolatzen.

VI) baimen- eta prestakuntza-aldiak modu ulertezinean edo arrazoirik gabe ukatzen dira.

VII) bere lanpostuari dagozkion zereginetatik pixkanaka kendu egiten da.

b) sexu-jazarpena: nahi ez den sexu-jokabide oro; lantokian edo lanarekin lotuta egina; eta ondorio moduan, pertsona babestua iraindua, bortxatua, diskriminatua edo laidetsia sentitzea duena. Sexu-jazarpenzat har daiteke pertsona babestu baten lanpostua, karrera profesionala edo egoera kontrolatzeko edo horietan eragiteko edo erasateko erabiltzen den sexu-jokabide hertsatzailea. Sexu-jazarpena, baita ere, ager daiteke pertsona batek edo gehiagok pertsona babestu batekiko jokabide mingarria edo iraingarria azaltzen dutenean, edozein ikuspuntutatik begiratuta pertsona babestu horren sexua edo sexualitatea oinarri hartuta, nahiz eta horrelako jokabideek pertsona horren karreraren edo lanean, itxura batean, ondorioz ez izan. Sexu-jazarpena hainbat modutan agertzen da; besteak beste, honela:

I) nahitako eta eskatu gabeko kontaktu fisikoak burutzen dira, fisikoki gehiegi eta beharrik gabe hurbilduz.

II) pertsona babestu baten gorputzari, itxurari edo bizimoduari buruzko sexu-iruzkinak -eta keinuak behin eta berriz egiten dira.

III) telefono-dei, eskutitz edo posta elektronikoko mezu mingarriak egiten edo bidaltzen dira;

IV) behin eta berriz osotasun fisikoaren eta osotasun sexualaren aurkako jazarpen iraingarria egiten da;

V) eduki sexual nabarmena duten interneteko grafiko, biñeta, marrazki, argazki edo irudiak azaltzen edo erakusten dira, baimenik gabe eta osotasun sexualari eraginez;

VI) pertsona babestu baten bizitza pribatuari buruzko galderak edo iradokizunak egiten dira, osotasun eta bateratasun sexualaren kaltetan;

VII) osotasun eta bateratasun sexualari eragiten dioten broma eta proposamen esplizituak egiten dira.

Sexu-jazarpenaren debekuak hartzen ditu lantokian edo lanarekin lotutako eginkizun sozialetan izaten diren jokabideak, lana dela-eta hasitako bidaietan edo zereginetan, edo UPV/EHUK parte hartzen duen proiektuen inguruko kanpo-lanetan.

c) jazarpena, arrazoi ideologikoengatik eta/edo erakunde politiko edo sindikaletako partaide izateagatik. Jazarpen-mota hau era honetan agertzen da:

I) pertsona bat diskriminatzeko, kanpo uzteko edo bakartzeko ekintzak burutzen dira, erakunde politiko edo sindikal bateko partaide izateagatik;

II) ordezkariak sindikalen jarduera oztopatzeko eta ospea kentzeko ekintzak burutzen dira;

III) pertsonen ospe pertsonala edo profesionala manipulatzeko da, atxikipen ideologiko edo sindikalagatik, horretarako difamatuz, barregarri utziz edo izena zikinduz.

2.9. "Kontziliazioa" da prozesu bat, zeinaren bidez adostaille batek aldeei adostutako konponbide bat lortzeko, betiere, jakina, hirugarrenen pertsonen eskubideei eragin gabe libreki konpondu ditzaketen gaiak baldin badira.

2.10. "Goragoko organoa" da pertsona babestuak hierarkikoki bere gainean duen organoa edo beste edozein goragoko organoa.

2.11. UPV/EHUko aldeleak edo defentsari unibertsitarioak eginkizun hauek ditu, Estatuetan aurreikusten den legez: batetik, komunitate unibertsitaria osatzen duten kideen eta kolektiboen eskubideak eta askatasunak organo eta zerbitzu unibertsitarioetan errespetatuak izan daitezzen zaintzea, eta, bestetik, jarduera unibertsitarioarekin (edozein mailatakoa dela ere) zerikusia duten arazoei eta gatazkei aurre hartzeko eta erabaki bat emateko modu alternatiboak, kontraktasunik gabekoak eta inpartzialak ematea eta garatzea.

3. artikulua

Prebentzioa

3.1. Pertsona babestu guztiek hitzarmen honen kopia bat jasoko dute. Aldeek ziurtatuko dute pertsona babestu guztiek hitzarmen honen berri badutela eta gidaliburu bat prestatuko dute, hitzarmen honen ondorioak eta jazarpen-kexei aplikatu dakiekeen prozedurak nola funtzionatzen jakitera emateko.

3.2. Pertsona babestu guztiei prestatzeko aukera emango zaie (prestakuntza osoa, aldizkakoa eta iraunkorra), sexu-jazarpenaren, larderiaren eta beste edozein jazarpen-motaren inguruan.

3.3. UPV/EHUK prebentzioaz eta prestakuntzaz arduratzen diren zerbitzuei, trebakuntza eta informazioa emango die, sexu-jazarpenaren prebentzioari buruz oro har, eta hitzarmen honen funtzionamenduari buruz bereziki. Atal hau prebentzioko ordezkariari ere aplikatu daieke. Hitzarmen hau sinatzen duten aldean ordezkari izanik bitartekari-edo kontziliazio--prozesuan era batera edo bestera parte hartuko dutenek bitartekari-lanei buruzko prozesuaren eta tekniken oinarritzko ikastaro batean parte hartuko dute, UPV/EHUren kontura.

3.4. Hitzarmen honen berri pertsona babestu guztiei emango zaie, hitzarmen honetara lehen aldiz sartzen direnean.

3.5. 30 eguneko epean, hitzarmen hau sinatzen den egunetik kontatzen hasita, UPV/EHUK jazarpen-kasuen prebentzioari eta konponketei buruzko deklarazio bat argitaratuko du, pertsona babestu guztientzat, eta deklarazio horretan hitzarmen honetako 1. artikuluan jasotako printzipio gidatzaileak adieraziko dira. Deklarazio hori pertsona babestu guztiei jakinaraziko zaie, aurreko ataletan aipatzen diren sartzeko, prestatze- eta trebatze-prozesu guztietan.

3.6. UPV/EHUK orrialde batzuk sortu eta zainduko ditu intraneten, jazarpenaren prebentzioari eta konponketari buruzko eta hitzarmen honen funtzionamenduari buruzko informazioarekin.

3.7. UPV/EHUK informazio-iturri osatuagoak eta zehatzagoak sortu eta zainduko ditu, jazarpen-kasuei buruzko prebentzioaren eta konponketen inguruan, informazio hori lortu nahi duten edozein pertsona babesturentzat.

3.8. Hitzarmen honen aplikazioaren segimendua eta ebaluazioa egiteko asmoz, UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak inkesta eta estudio anonimoak burutuko ditu.

Inkesta horien bidez, lana dela-eta UPV/EHU gertatzen diren jazarpen-kasuen izaera eta maiztasuna aztertu beharko da. UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak argitaratu egingo ditu bildutako informazioa eta datuak.

4. artikulua

Arau orokorrak

4.1 Prozeduraren hasiera

Prozedura kexa baten bidez hasiko da; salatzaileak edo horren ordezkari legalak eginiko idazki indibidualean aurkeztuko den kexa baten bidez, hain zuzen ere. Prozesuaren ekonomiaren printzipioa oinarri hartuta, kexa berdinak edo antzekoak metatu daitezke.

4.2. Informazioaren komunikazioa, intimitatearen eta konfidentzaltasunaren errespetua

Pertsona babestu batek jazarpen-kexa bat aurkeztu eta, kexa hori konpontzeko, hitzarmen honetan aurreikusitako bitartekoak aipatzen dituenean, demandatzaileek eta demandatuek eskubidea izango dute prozesuaren emaitzaren inguruko material apropos guztia izateko, baldintza hauen arabera:a) prozesuaren emaitza aintzat hartuta, "material apropos guztia" osatzen dute UPV/EHUK eta jazarpen-kexaren inguruan zerikusi zuzena duten pertsonen gordetako edo sortutako agiriek eta informazioek.

b) UPV/EHUK, demandatzaileak edo demandatuak agiri edo informazio aproposak emateko erreparatuak dituztenean, aldezleari bere iritzia berehala eskatu beharko die, ea agiri edo informazio horiek eman behar dituzten ala ez jakiteko. Aldezleak eskatzaileari gomendio bat emango dio urgentziaz, gehienera jota eskaera-egunetik hasita hamar eguneko epean, eta gomendioari idatziz erantzun beharko dio aldezleari, hamar eguneko epean gomendia jasotzen duenetik kontatzen hasita. Erantzunean, gaiaren inguruan hartutako erabakia arrazoitu beharko du.

4.3. Jazarpen-kexen konponketa estraofiziala

UPV/EHUK ez du inolako erregistro espezifikorik gordeko, jazarpen-kexen konponketa estraofizialen prozesuentzat.

Prebentzio Zerbitzuko norbaitek parte hartzen duen prozesu estraofizialetan, dokumentazioa Zerbitzuko artxiboan artxibatuko da, indarrean dagoen legeriaren arabera.

4.4. Epeak

Baldin eta jazarpen-kexa bat aurkeztu eta horri erantzuteko ezarritako epea errespetatzen ez bada, demandatzaileak eskubidea izango du prozeduraren hurrengo fasea hasteko.

5. artikulua

Jazarpen-kexekin lotutako intzidenteen konponketa estraofiziala

5.1. Jazarpena jasan dutela edo jasaten ari direla uste duten pertsona babestuei animatzen zaie gaia lehenengo instantzian, zuzen-zuzenean eta modu estraofizialean dagokion pertsonarekin edo taldearekin konpontzera. Horretarako, honako hauei informazioa eta aholkularitza eska diezaiekete:

- a) pertsonalaren kideari dagokion goragoko organoari;
- b) aldezleari edo horrek izendatzen duen pertsonari;
- c) Prebentzio Zerbitzuko buruari edo horrek izendatzen duen pertsonari;
- d) sindikatuen ordezkariari
- e) Pertsonalaren gerenteordeari edo horrek izendatzen duen pertsonari;
- f) Irakasleen errektoreordeari edo horrek izendatzen duen pertsonari;

5.2. Demandatuarekin izango duen elkarrizketara, demandatzaileak lehen aipatutako pertsona horietakoren bat edo beste pertsona babesturen bat eraman dezake, lagun gisa, eta pertsona laguntzaile hori, demandatzaileak hala eskatzen badiu, prozesuaren konponbide estraofiziala lortzen saiatuko da edo lagunduko du, kontziliazioaren edo bitartekari-lanen bidez. Auzia modua estraofizialean konpontzeko egiten den edozein ahalegin lehenbailehen egin beharko da, jazarpen-alegatuaren ondoren.

5.3. Pertsona babestu batek uste badu erabaki estraofiziala bidezkoa ez dela, alferrik luzatzen ari dela edo eraginkorra ez dela izan, elkarrizketaren bidez konpontzeko prozesuan aurreikusten den edozein aukerari heldu diezaiolke berehala.

5.4 Artikulu honetan aurreikusten diren intzidentzien konponketa estraofizialetan, erabakitzeko epea 10 egunekoa izango da, kexa aurkezten denetik kontatzen hasita.

Elkarrizketa-bidezko konponketa-prozesua

6. artikulua

Prozesuaren hasiera

6.1. Jazarpena jasan dutela edo jasaten ari direla uste duten pertsona babestuek, beren jazarpen-kexak konpontzeko, ondorengo modu hauetakoren bat aukera dezakete:

- a) goragoko organoak eta pertsona babestuak bilera bat eginez; edo
- b) aldezlearen aurreko prozesua burutuz.

6.2. 6.1. artikuluan aurreikusitako prozedurak aipatu nahi dituen demandatzaile orok bi hilabeteko epea izango du, gehienez, horretarako, jazarpen-kexa eragin zuen

intzidentea edo intzidenteak gertatu zenetik edo zirenetik kontaktzen hasita; jokabide etengabe baten ondorioz gertatutako intzidentea baldin bada, berriz, hiru hilabeteko epea izango du, jokabide hori jasaten hasi zen egunetik hasita. Aurreikusitako epez kanpo izan arren pertsona babestu batek prozedura aipatu nahi badu, idatzizko eskabide bat igorri beharko dio aldezleari, eta horrek erabakiko du kexa aztertu ala ez. Aldezleak horren inguruan hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta horien aurka ezin ezingo da errekursorik aurkeztu.

7. artikulua

Goragoko organoen zeregina

7.1. Jazarpen-kexa bat konpontzeko asmoz, demandatzaile batek bere goragoko edozein organorekin bilera estraofizial eta pribatu bat egiteko eska dezake. Demandatzaileak bilera hori eskatuz gero, goragoko organoak laguntza eman beharko dio; hain zuzen ere, jazarpen-kexa bat konpontzeko dauden moduei buruzko informazioa eta aholkularitza eman beharko dio. Nola eta demandatzaileak besterik erabakitzen ez duen, goragoko organoak pribatuzat eta isilpekotzat hartu beharko ditu bai era honetako edozein bilera eta baita eskabidea bera ere. Ez da horrelako bileren erregistrorik gordeko.

8. artikulua

Aldezlearen zeregina

8.1. Hitzarmen honen arabera jazarpen-kexak aztertzerakoan, aldezleak eginkizun nagusi hauek beteko ditu:

- a) jazarpen-kexak aztertuko ditu, kexa horien inguruan gertatutakoa mugatzeko;
- b) jazarpen-kexen inguruko erabaki-proposamenak aurkeztuko ditu; eta
- c) hitzarmen honetan aipatzen diren gai espezifikoak aztertuko ditu.

8.2. Bere jardunean, aldezleak hitzarmen honetako aldeekiko independentea izango da, eta bere eginkizunak autonomia osoz beteko ditu.

8.3. 1.8 artikuluan ezarritako muga barruan, aldezleak urteko txosten bat aurkeztuko die aldeei; hasitako jardueri, eginiko gomendioei eta ekitaldian hartutako neurriei buruzko txostena, hain zuzen ere.

9. artikulua

Kasuak aldeleari bidaltzea

9.1. Demandatzaile batek jazarpen-kexa bat aldeleari igorri diezaioke, zuzenezuzenean, 5, 6 eta 7. artikuluetan deskribatutako prozesura jotzea bidezkoa ikusten ez duenean edo prozesuaren emaitzarekin ados ez dagoenean.

9.2. Demandatzaile batek jazarpen-kexa bat aldeleari igorri diezaioke, 6.2 artikuluan aurreikusitako epean aurkeztutako idatzizko deklarazio baten bidez. Deklarazio horretan, datu hauek aipatu beharko ditu:

- a) demandatzailearen izena eta horrekin komunikatzeko modua;
- b) auzitara aurkezten den jazarpen-kexaren izaera;
- c) demandatzaileak aldelearekin bilera bat eskatzen badu; eta
- d) demandatzaileak aurkeztu nahi duen beste edozein datu.

9.3. Aldezleak, 9.2 artikuluaaren arabera idatzizko deklarazioa jasotzen duenean, ikerketari ekin ahal izango dio, 8. artikuluaaren arabera.

9.4. Ikerketan, aldezleak bere ustez jazarpen-kexaren inguruan informazio interesgarriren bat eman dezaketen pertsonari dakitena aitortzeko eska diezaike. Aldezleak pertsona horiekin bilerak edo elkarrizketak ere eduki ditzake.

9.5. Bere eginkizunak burutzerakoan, aldezleak bidezkoa iruditzen zaion edozein agiri edo informazio aurkezteko eska dezake.

10. artikulua

Aldelearen aurreko prozedura

10.1. Aldezleak demandatzailearekin, demandatuarekin edo bidezkoa iruditzen zaion beste edozein pertsonarekin antola ditzake bilerak, jakinarazpen soil baten bidez, baina betiere muga hauekin:

- a) demandatzailearekin eta demandatuarekin batera bilera egitekotan, aurretik horiek biek bilera egitea onetsi egin beharko dute;
- b) demandatzaile batek edo demandatu batek aldelearekin bilera pribatu bat eskatzen duenean, antolatu egingo zaio.

10.2. Elkarrekin egiten diren bilerak aldezeak gidatuko ditu.

10.3. Demandatzaileak eta demandatuak bakoitzak bere ordezkariaren edo aholkulariaren bidez bileretara joateko eskubidea izango dute. Bileretan sindikatuetakordezkari bat lagun gisa edukitzeko eskubidea ere izango dute.

10.4. Bilera baten ondoren, aldezeak elkarriketa edo ikerketa berriei ekin ahal izango die, 8. artikuluan aurreikusten diren bere eginkizunak bete ahal izateko.

11. artikulua

Aldezearen txostena

11.1. Aldezeak txosten zehatz bat egingo du, igorri dioten kasuaren eta/edo prozesuaren emaitzen inguruan, eta, ahal izanez gero, kexa konpontzeko proposamena egingo du.

11.2. Aldezeak erabaki-proposamenik aurkeztuko ez balu, txosten bat aurkeztuko luke kexa ez konpontzeko arrazoiak adieraziz.

11.3. Hauei banatuko zaizkie aldezearen txostenaren kopiak:

a) demandatzaileari;

b) demandatuari; eta

c) dagokion goragoko organoari (demandatzaileak, hasieran, jazarpen-kexa goragoko organo horri bidali badio).

11.4. Aldezeak aurkeztutako erabaki-proposamenen kopia proposamen hori gauzatzeko neurriak hartzeko eskatzen zaion pertsona guztiei emango zaie.

11.5. Aldezea eta horren txostenaren kopia jasotzen duten pertsonak behartuta daude txostenaren isilpekotasuna errespetatzera.

12. artikulua

Epeak

12.1. Aldezeak 30 eguneko epea izango du, jazarpen-kexaren hasierako jakinarazpenaren egunetik kontatzen hasita, konponbide bat aurkitzeko eta bere txostena 11. artikuluko 3 eta 4. ataletan aipatutako pertsoneri aurkezteko. Epe hori, amaitu baino lehen, aldezeak luza dezake beste 30 egunez, aurretik interesatuei jakinarazita; hala, 60 eguneko epea izango du, gehienez.

13. artikulua

Konponketa-prozeduraren amaiera, elkarrizketaren bidez

13.1. Demandatzaileak Arbitraje Batzordeari igorri diezaioke jazarpen-kexa, baldin eta kexaren inguruan aldezleak proposatutako konponketarekin ados ez badago edo aldezleak proposatutako ekintza gauzatzen ez bada; horretarako, 30 eguneko epea izango du, aldezlearen txostena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.

Erabaki bidezko konponketa

14. artikulua

Arbitraje Batzordea

Eginkizunak eta osaera

14.1. Arbitraje Batzordearen prozeduran demandatzailearen eta demandatuaren arteko desadostasun-gaiaren inguruko gertakariak eta/edo argudioak oso-osorik aztertuko dira, jazarpen-kexak kontuz ibili beharreko gaiak direla aintza hartuz. Prozesuari Arbitraje Batzordeak aurkeztutako ekintza-proposamen baten bidez emango zaio amaiera.

14.2. Arbitraje Batzordea sei pertsonen osatuko dute. hiru UPV/EHUren izenean eta beste hiru sindikatuen izenean. UPV/EHUren ordezkarietako bat lehendakaria izango da eta bestea idazkaria; sindikatuen ordezkariak, berriz, txandakako sistema baten bidez egongo dira (UPV/EHUordezkaritza duten sindikatu guztietako kideak egongo dira), eta sindikatu guztiek prozedura-kopuru berdintsuan parte hartzeko moduan txandakatuko dira. Alde bakoitzak bere ordezkariak eta horien ordezkoak izendatuko ditu.

14.3. Arbitraje Batzordeko kideei azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeko 28. artikulua (abstentzioa) eta 29. artikulua (errekusazioa) aplikatu dakizkieke.

15. artikulua

Kasuak Arbitraje Batzordeari bidaltzea

15.1. Demandatzaileak, bere kabuz edo ordezkariaren bidez, Arbitraje Batzordeari bidali diezaioke jazarpen-kexa, idatzizko jakinarazpen baten bidez; horretarako, 30 eguneko epea izango du, aldezlearen txostena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.

15.2. Idatzizko jakinarazpen horretan, datu hauek aipatu beharko ditu:

- a) demandatzailearen izena eta horrekin komunikatzeko modua;
- b) auzitara aurkezten den jazarpen-kexaren izaera;
- c) dagokion goragoko organoak proposatutako edozein ekintza;
- d) aldezlearen txostenaren kopia;
- e) demandatzaileak nahi duen konponketaren deskribapena;
- f) demandatzaileak Arbitraje Batzordeari entzuteko eskatzen dizkion lekuko en izenak (egonez gero) eta, eskatzen badu, ahozko bista bat; eta
- g) egiaztagiri guztien eta bidezkoa iruditzen zaion beste edozein informazioaren kopia.

16. artikulua

Arbitraje Batzorde aurreko prozedura

16.1. Jazarpen-kexa Arbitraje Batzordeari ofizialki jakinarazi ondoren, Batzordeak demandatzaileari (eta beharrezkoa ikusten badu, UPV/EHUko organoei ere bai) eskatuko dio egin nahi duten edozein deklarazio idatziz egiteko. Idazkiarekin batera, bidezkoa iruditzen zaien dokumentazioa aurkeztuko dute eta ahozko bista burutzea ere eska dezakete. Deklarazioa Arbitraje Batzordeari jakinaraziko zaio, Batzordeak hori eskatutakoan ezarri zuen epean.

16.2 Arbitraje Batzordeko lehendakariak zuzenduko ditu Batzordeko lanak. Arbitraje Batzordeko kideek, bidezkoa iruditzen bazaie, kasuak aztertze prozedurari buruzko arauak ezarriko dituzte, hitzarmen honetako xedapenak errespetatzen dituzten arauak, betiere. Lehendakariak ahalmena izango du prozeduraren inguruko gaiak erabakitze, Arbitraje Batzordeko gainerako kideekin kontsultatu eta gero.

16.3. Arbitraje Batzordeak demandatzailearen, demandatuaren eta UPV/EHUren idatzizko deklarazioak jaso dituenean, ahozko bista egiteko beharra dagoen ala ez erabakiko du, aldeek hala eskatuta edo ofizioz. Arbitraje Batzordeak ahozko bisten inguruan hartzen duen erabakia behin betikoa izango da eta ezin izango da horren aurka errekursorik aurkeztu. Arbitraje Batzordeak ahozko bista egitea ukatuko balu, ukatzeko izan dituen arrazoi espezifikoak azalduko ditu.

Demandatzaileak, demandatuak eta UPV/EHUK ahozko bistan egoteko eskubidea izango dute.

Azterketan, demandatzaileak, demandatuak eta UPV/EHUK ordezkari bat izendatzeko eskubidea izango dute, ondorengo baldintza hauek errespetatuz:

a) demandatzaileak eta demandatuak eskubidea izango dute ordezkatuak izateko eta sindikatuetakorde ordezkari edo beraiek aukeratutako beste edozein ordezkari bat lagun gisa eramateko.

b) UPV/EHUK bere ordezkaria berak aukeratzeko eskubidea izango du.

Ahozko bista prozedura inpartzial baten bidez burutuko da, Arbitraje Batzordeak jazarpen-kexen inguruan ezarritako arauak aintzat hartuz.

Arbitraje Batzordeak bistako akta bat gordeko du. Bistan parte hartzen dutenek akta aztertzeko eta aktaren kopiak jasotzeko eskubidea izango dute.

16.4- Arbitraje Batzordeak bistan parte hartzen duen edozeini, edozein unetan, agiriak edo informazioa aurkezteko eska diezaioke. Agiri edo informazio hori Arbitraje Batzordeak agindutako epean entregatu beharko dira. Arbitraje Batzordeak berehala helaraziko dizkie parte-hartzaileei agirien edo informazioaren kopiak, nola eta aho batez erabakitzen ez duen informaziorik ez ematea; hori erabakitzen badu, idatziz jakinarazi beharko dizkiete parte-hartzaileei erabaki horren arrazoiak. Arbitraje Batzordeak epe bat finkatuko du, parte-hartzaileek beren alegazioak aurkez ditzaten. Arbitraje Batzordeak, gainera, edozeinen aholkuak edo iritziak eskatu ahal izango ditu. Jazarpen-kexa bat aztertzean, Arbitraje Batzordeak aldeleari horren informazioa eta iritziak eska diezazkioke.

16.5 Arbitraje Batzorde aurreko prozeduran parte-hartzaileek kexa konpondu eta biek konponbide batera iristea erabakitzen badute, Arbitraje Batzordeko lehendakariari horretarako denbora emateko eska diezaike, edozein unetan. Lehendakariak ematen dieten denbora guztian, Arbitraje Batzorde aurreko prozesuari aplikatu dakizkiokeen epeak (16. artikuluan aurreikusten direnak) etenda geratuko dira. Demandatzailea eta demandatua biek batera idatzitako idazki baten bidez biek onartzen duten konponbide batera iritsi direla lehendakariari jakinarazten badiote, Arbitraje Batzorde aurreko prozedura amaitutzat emango da.

17. artikulua

Epeak

17.1. Arbitraje Batzordeak 30 eguneko epea izango du, idazkia jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, bista burutu eta proposatutako ekintzaren inguruan erabaki bat hartzeko; ekintza hori errektoreari jakinarazi beharko zaio. Baldin eta Arbitraje Batzordeak lan hori 30 eguneko epean ezin duela egin erabakitzen badu, parte-hartzaileei jakinarazi beharko die 45 egunera luzatuko dela epea, gehienez.

18. artikulua

Arbitraje Batzordeak proposatutako ekintza

18.1. Arbitraje Batzordeak bilera pribatu batean eztabaidatuko du jazarpen-kexari buruz. Proposatuko duen ekintza errektoreari jakinaraziko zaio, eta hor ondorengo informazio hau bakarrik azalduko zaio:

- a) kasuaren inguruko gertaera garrantzitsuenen laburpen bat, Arbitraje Batzordearen iritziz egiaztatuak izan diren gertaerena hain zuzen ere.
- b) Arbitraje Batzorde aurrean burututako izapideak;
- c) parte-hartzaile bakoitzak azalduko arrazoibideen laburpen bat; eta
- d) Arbitraje Batzordearen proposamena, auziaren funtsari eta konponbideei dagokienez, eta proposamen hori aho batez onartu zen ala ez.

18.2. a) Arbitraje Batzordeak bere ekintza-proposamena parte-hartzaileei eta errektoreari jakinaraziko die, 10 eguneko epean, azterketa amaitzen denetik kontatzen hasita.

- b) Errektoreak erabakiko du, bere eskumenen arabera eta ekintza-proposamena aintzat hartuz, zer ekintza burutu behar den, eta hartzen duen erabakia berehala jakinaraziko die parte-hartzaileei; horretarako 15 eguneko epea izango du, Arbitraje Batzordearen proposamena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.
- c) Errektoreak aurreko paragrafoan aurreikusitako epean erantzuten ez badu, Arbitraje Batzordeak proposatutako ekintza ontzat emango da eta loteslea izango.

d) Errektoreak proposamena onartzen ez badu, aldeei eta Arbitraje Batzordeari zehatz-mehatz azalduko die zergatik ez duen onartzen.

19. artikulua

Kostuak

Arbitraje Batzorde aurreko bistaren ondorioz sortutako kostu guztiak UPV/EHUK ordainduko ditu, kanpo-ordezkaritzari dagozkionak izan ezik.

20. artikulua

Larderia edo jazarpena

20.1 UPV/EHUK jazarpena jasan dutela usten duten pertsona babestuei, jazarpen-kexa bat aurkezten dietenei, hitzarmen honen arabera edozein prozesutan (informazioa emanez, lekuko gisa arituz) lagundu dutenei edo Arbitraje Batzordeko kideei bermatuko die ez dutela larderiarik, jazarpenik, diskriminaziorik edo errepresaliarik jasango. Horrelako ekintzak diziplinako gaitzat hartuko da.

20.2 Salatutako gertaerak egiaztatzea ezinezkoa denean, ez dira inoiz errepresaliatzko neurririk hartuko salaketa aurkeztu duen langilearen kontra; aitzitik, oso arreta handiz aztertuko da egoera, jazarpenik ez dagoela ziurtatzeko. Nolanahi ere, neurriak hartuko dira iruzurrezko edo prozedura honen helburuarekin bat ez datozen salaketen kontra.

21. artikulua

Neurri iragankorrak

21.1 Aldeek onartzen dute hitzarmen hau aplikatzerakoan beste arazo iragankor batzuk sor litezkeela. Aldeetako batek eskatzen badu, urgentziaz negoziatu daitezke arazo iragankor horientzako konponbideak.

21.2. Xedapen iragankor honen arabera aurkezten diren jazarpen-kexak hitzarmen honetan aurreikusitako prozeduren arabera konponduko dira.

21.3 Aldezlea izendatzen ez den bitartean, hitzarmen honen arabera harenak diren eginkizunak Prebentzio Zerbitzuak beteko ditu.

22. artikulua

Beste gai batzuk

22.1. Hitzarmen hau 2004ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta bi urteko balioa izango du, aplikatzen hasten den egunetik kontatzen hasita. Aldeek erabakitzen dute hitzarmen honen funtzionamendua balioa amaitzen zaionean aztertzea. Aurrerantzean, eta azterketarik ezean, hitzarmenak epemugarik gabe jarraituko du indarrean, eta, luzatutzat hartuko da, bi aldeetako baten gehiengoak denuntziatzen ez badu; denuntziatzeotan, epemuga baino bi hilabete lehenago denuntziatu beharko da, gutxienez.

22.2. Ezin izango da hitzarmen honetako xedapenik inola ere eten, aldatu, deuseztatu edo zuzendu, nola eta aldeek horretarako idatzizko akordiorik sinatzen ez duten. Aldeek, Campusen Arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean, hitzarmen honetako edozein atal berriro negoziatu dezakete.

FETE-UGTren izenean	LABen izenean	ELAren izenean
STEE-EILASen izenean	CC.OO.en izenean	CSI-CSIFren izenean
Administrazioaren izenean		